

**Euskararen egoera akademian (2001-2021):  
Historialari euskaldunen topaketen harira egindako gogoeta**

Unai Belaustegi eta Sergio Escribano  
UPV/EHU

2022ko uztailaren 1ean, Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) historialari euskaldunen topaketak antolatu zituen, Eibarren. Udako ikastaroen 50.urteurrena betetzen zela aprobetxatuz, era honetako seigarren edizioa ospatu zen. Kontuan edukiz gero, aurrekoa hamarkada bat pasa ospatu zela, 2009ko abenduan, bertaratu ziren historialari eta historiazaleak topaketa hauen garrantziaz jabe izan ziren: hamahiru urteren ondoren, eguneraketa bat egiteko aukera ikusi zuen UEUko Historia sailak.

Ekimen hari esker, 2009ko hartatik aurreko generazioetako kideak eta mundu akademikora batu berri garen generazio berrien parte garenok, euskaraz historia egiten dutenek, dugunok, elkar ezagutu, gure lanak ikusarazi eta historiaz hitz egiteko parada eduki genuen. Guztira, 20 historialari elkartu ginen Eibarren, gaur gaurkoz aurrera daramatzagun ikerlerroak elkarbanatu eta etorkizunari begira zer egin dezakegun eztabaidatzeko. Aurrerantzean, historialari euskaldunen arteko elkarlana sustatu nahi izan zen Eibarreko bilkurarekin.

Halaber, historialari euskaldunen topaketek, zentzu akademiko zurrun batetik haratago, beti hartzen du beste zentzu bat, euskaldunen edozein topaketek hartzen duten bezala. Kopuruz gutxi izatearen kezkak, euskara mantentzearen ardurak, elkartu egiten du. Sentsazioa ez da berria, eta akademiaren inguruan mugitzen garenok topaketok *Kontrapas* bihurtu izanaren sentsazioa ere ez. Euskaraz idazten hasi zirenetik bertatik datorren zerbait da, gutxienez. Eibarren, euskarak akademian (ere) bizi duen egoeraren jabe, kezka akademikoez gaindiko ardurak eta interesak bildu ziren.

Euskaldun orok sumatzen du, bere arlokoan, nonbait, euskararen egoera ez dela euskal hiztun bati eroso sentiarazten dion adinako. Eta akademia eremu horietako bat da. Izan dira, ikuspegi baikorragoa eskaini izan ohi dutenak. Duela ehun urte pasa, 1918an Oñatin elkartu ziren akademiko haiek, “euskal ikerketak” hartzen ari ziren gero eta “garrantzia” handiagoari erantzun nahi izan zioten. Eibarren, helburu xumeagoarekin baina euskal ikerketek eta euskaraz egindako ikerketek egun bizi duten egoera ezagutzeko aukera eduki genuen.

Historia Garaikideari eskaini zitzaion mahaia irekitzeko, gogoeta txiki bat aurkeztu genuen euskarak akademian bizi duen egoera ardatz hartuta. Jasotako emaitzek erakusten duten panoramak ez du 1918an Oñatin aurkeztu nahi izan zuten baikortasunari eusten askorik laguntzen.

Horretarako, Euskal Herriko unibertsitate publikoetan XXI. mende honetan Historia Garaikidearen arloan defendatu diren doktorego tesiak zenbatu genituen: Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan (UPNA/NUP)<sup>1</sup>. Zenbaketa egiteko orduan, zenbait aspektu hartu genituen kontuan. Alde betatik, 2011an,

---

<sup>1</sup> UPV/EHUko Historia Garaikidean defendatu diren tesiei dagokienez, izenburuak erabili dira erreferentziazat.

UPV/EHUko Historia Garaikidea Departamentua Unibertsitate Arteko Doktorego Programa berriaren baitan hasi zela lanean, Estatuko beste unibertsitate batzuekin elkarlanean, programa bateratu bat eskainiz. Honek, ibilbide berrira moldatu beharra ekarri zuen.

Bestetik, UPNA/NUPen ez dagoela egun, Historia Garaikideko doktoretza programarik. Historia Garaikidearen arloan lan egiten duten historialariak eta doktoregaiak, Gizarte Zientziak eta Zuzenbidearen barnean edo Humanitateen eta Gizarte Zientzien doktorego programan aritu dira orain arte.

Egoera hau izaki, 2001 eta 2021 bitartean UPV/EHUko Historia Garaikideko Unibertsitate Arteko Doktorego Programan eta UPNA/NUP-eko doktoretza programa guztietan defendatu ziren tesiak kontuan hartu ditugu. Zoritzarrez, lana, uste baino errazagoa izan da. Emaitzak hauetxek:

2001ko urtarriletik 2021eko abuztua bitartean, EHU/UPVko doktorego programen barruan, Historia Garaikidean defendatu ziren tesiak, guztira, 51 izan ziren. Horietatik 11, euskaraz. Alegia, euskaraz defendatutako tesiek, kopuru osoaren %21'6 suposatu zuten. Aipagarria da, gainera, hamaika horietatik bost tesi, euskaraz eta gaztelera ez den beste hizkuntza batean (ere) idatzi eta defendatuak izan zirela. Tesi hauek nazioarteko tesien aipamena lortu zutela, tribunalean, besteak beste, bertoko eta beste leku batzuetako euskaldun adituak egon baitziren.

2001 eta 2012 bitartean, euskaraz lau tesi bakarrik defendatu ziren UPV/EHUko Historia Garaikidean. Gai anitzak landu zituzten lau hauek. Resurrección María Azkueren ingurukoa, euskal kultura frankismoan aztergai zuen beste bat, euskal komunitate zientifikoa ikertu zuena hirugarrena eta azkenik, *Euskalduna* astekariaren analisia Lehendabiziko Mundu Gerraren testuinguruan egin zuen bestea.

Hurrengo hamar urteetan, beste zazpi tesi defendatu ziren esparru berberan. 2014an bat, Gipuzkoako errepublikanismoari buruzkoa. 2017an bi, Espainiako Bigarren Errepublikatik Frankismora bitartean, Beasaingo kasu-azterketa zehatza gauzatu zuena bata eta bestea, 1925 eta 1937 bitartean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako probintzia erakundetako finantza publikoen analisia.

2018an eta 2019an tesi bana defendatu ziren. Batak, generoaren ikuspegiaren bilakaeraren azterketa burutu zuen XVIII eta XIX.mende bitarteko Euskal Herrian. Besteak, hiru lurralde historikoetako administrazioek bultzatutako herri lanak izan zituen hizpide. 2020an, Herri Batasunaren oinarri soziologikoak eta bere baitan sortutako metakontakisunen analisia aurkeztu zuen beste tesi batek, eta azkenak, 2022an, Irun eta Hondarribiako alardeen inguruko analisia defendatu zuen.

Aipatu diren tesi guzti hauek, euskal munduari zuzenean lotutakoak dira. Edo beste era batera esanda: UPV/EHUko XXI.mende honetan euskaraz idatzi diren tesiek, Euskal Herria edo Euskal Herriko gertaerak eduki dituzte hizpide. Euskara, nahiz eta nazioarteko tesi batean izan, eta ondorioz, nazioarteko eraginetatik edan, oraindik bertoko gaiak lantzeko bakarrik erabilia izaten ari da. Nazioarteko tesia izateak, aipatu bezala, euskal unibertsoaren zabaltze esanguratsu bat egon dela adierazten duen arren, zabalkunde horretan, gaia, oraindik, euskal mundua da.

Hau esanda, EAEn, euskaldunoi akademian oraindik bi erronka handi geratzen zaizkigula ondorioztatu genezake. Batetik, hizkuntzari berari tarte handiagoa eskaintzea. Alegia, euskaraz tesi gehiago defendatu eta historian orokorrean euskarari gorputza ematea. Akademiaren barnean, euskaraz aritzeko eta eztabaidatzeko esparruak sortu eta mantentzea beharrezkoa da, euskara esparru publikora baztertua izan ez dadin, berriro. Bestetik, euskararen erabilera Euskal Herriatik eta euskal gaietatik askatzea: beste hizkuntzetan gertatzen den bezala, hizkuntzarekin zerikusirik ez daukaten esparru geografikoetako gertaerak eta prozesu historikoak aztertzea. UEUK antolatutako kongresu honetan, gero aipatuko dugun bezala, zorioneko argi printza batzuk ikusi ziren arren, salbuespenak salbuespen, euskararekin ez da halakorik lortu. Euskara, Euskal Herriko kontuak lantzeko erabiltzen jarraitzen dugu nagusiki. “Jakobinoen gainbehera Frantziar Iraultzan”, “Britainiar inperio koloniala eta Indiako independentzia Musulmanen Ligaren arabera”, “Langile Mugimendua eta XIX.mende amaierako protestak Estatu Batuetan”, “Estatu gabe nazioak mundu globalizatuan: Korsikako egoera XXI.mendean” edo antzeko gaiak euskaraz lantzeko oraindik asko falta dela dirudi. Horra iristen garenean, akademian euskararen osasun onaz hizketan hasiko gara esatera ausartzen gara.

Tesi bat esparru akademikoan euskarak duen garrantziaren adierazle bezala hartzen badegu, EAEn euskal hiztunok erreferentzia gutxi ditugula ondorioztatuko dugu. Eta EAEn datuak oso baikorrak ez badira, Nafarroakoak, zinez kaxkarragoak dira. Aipatu bezala, erreinu zaharrea ez dago unibertsitate publikoan behintzat Historia Garaikideari zuzenean lotutako programarik. Hori dela eta, gure bilaketa UPNA/NUPeke doktoretza programa guztietara zabaldu dugu. 2001 eta 2021 bitartean, orotara, 1.100 tesi “inguru” defendatu ziren. Horietatik zazpi bakarrik daude euskaraz “erregistratuak”<sup>2</sup>. Alegia, UPNA/NUP osoan defendatu ziren tesi kopuru osoaren %0’63a.

Nafarroan defendatu ziren tesi gehienak, azken hamarkadan defendatu ziren. Tesi hauek lantzen dituzten gaiak dagokienean, antzekotasun handiak nabari dira. XXI.mendearen lehendabiziko hamarkadan, bi tesi defendatu ziren: Ingurugiro hezkuntzarekin lotutakoa izan zen lehendabizikoa, 2001an, eta Euskal erbesteari buruzkoa 2004an. Hurrengo, 2012an defendatu zen, Nikaraguako migrazio esperientziak eta Nafarroa lortzen zituena, Estatu Ongizatearen programaren barnean.

2013 eta 2016 bitartean, Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak programaren barnean hiru tesi defendatu ziren. 2013an bi, biak euskarari eta euskal hiztunen ingurukoak: Nafarroako familien azterketa soziolinguistikoa batetik eta Batxilergoko D ereduaren ingurukoak bestetik. 2016an defendatu zen tesiak, nolabait, berritasuna eskaini zuen gaiaren aldetik: Iruñean Frankismo garaian langile mugimenduaren bilakaera izan zuen hizpide. Azken tesia, zazpigarrena, 2021eko urtarrilean defendatu zen, diktaduraren azken urteetan eta Trantsizioan zehar Nafarroako mugimendu iraultzaileen gainekoa.

EAEn kasuan aipatu dugun bezala, Nafarroan ere antzeko ondorioak iradoki daitezke. Gaitegiari dagokionean, gizarte zientzien inguruan euskaraz gauzatu diren tesi guztiek Nafarroa edo Nafarroako eremu izan dituzte hizpide. Gainera, hizkuntza bera ere aztergai izan da gutxienez beste bi tesitan. Honekin lotuta, Nafarroan euskararen egoeraren

---

<sup>2</sup> Nafarroako Unibertsitate Publikoko Doktoretza Eskolako idazkaritzak helarazitako datuak (2022.06.30).

gaineko kezka akademian ere islatu dela esan daiteke. Tesien kopuru txikia kezkagarria dela aipatzea, beharrezko zerbait da.

Historia Garaikideaz aritu izan gara orain arte, luze, tradizioari jarraiki, topaketetan ordezkaritza handiena izan zuen arloa izan zelako. Eta aurrekoa Historia Garaikideko egoera hori bada, pentsa, gainerako arloen egoera nolakoa izan daitekeen: harik eta okerragoa izaten jarraitzen duela baieztatzea, ez da asmakizuna. Topaketa hauek, horren adibide ere izan ziren. Historiaurrea eta Antzinaroari eskainitako tartean esaterako, proposamenik jaso gabe gelditu ostean, solasaldi baten bidez erantzun genion arlo horien inguruan egun nagusi diren kezkei. Uztailean landa lanak izan ohi direla eta aitzakia baliozkotzat joko bagenu ere, topaketa hauetako hutsuneak ez dio men egiten, inolaz ere, Euskal Herrian eta akademian hain tradizio sakona izan duen beste funtsezko arlo honi. Bestalde, Erdi Aroa eta Aro Modernorako atalean, hiru ekarpen jaso ziren, aurretik aipatutako joerak baieztatuz.

Guzti honek historialari euskaldunak burbuila baten bizi ote ez garen galdetzera garamatza. Aurreko hamarkadetan ez bezala, harreman gehienak, eta gehienak ez badira asko, euskaraz ematen dira egun. Unibertsitatean, ikasle kopuru handiena euskalduna da eta, hartara, irakasgai zein irakasle gehienek euskaraz jakin badakite. Ondorioz, euskal historialari euskaldunen komunitatea handitu bada, datu hauek nola interpretatu beharko genituzke? Benetan komunitate bat al gara? Eta izan ez bagara, berau eraikitzeke prest gaude?

Hain zuzen, topaketen birsortzearekin egun begi aurrean dugun egoerari neurria hartzea genuen xede. 2009.eko azken topaketatik, nola aldatu da eta zein noranzkoan euskal historiaren eta historialarien norabidea? Euskararen egoera alor akademikoan, edozein izanda ere, neurtu beharra zegoen, eta aldi berean topaketen bidez sustatu. Baina, lehen deia zabaldu eta jaso genuen erantzun eskasak ekimen beraren bideragarritasuna kolokan jarri zuen. Testuinguru horretan, ekimena bera aurrera eramanez ahal izatea ez zen berez arazoa, berorren sintoma nabariena baino.

UEUko Historia sailak betidanik osatu izan du komunitate txiki bat. Eta hala izaten jarraitu nahi du, topaketak berpizteko saiakera hau izanik horren azken adierazle. Kafe baten inguruko solasaldi moduan planteatu ziren, norberak bere ikerketa lerroak eta ardurak modu lasai eta konfiantza giroan elkarbanatu asmoz, beti ere euskaraz eta kaferik gabe.

Eibarko topaketaren helburuak xumeak izan baziren ere, euskara akademiara ekarri eta akademia euskarara hurbiltzeko saiakeraren barnean emandako beste pausu bat bailitzan ulertu behar da. Eta zailtasunak zailtasun, zentzu honetan, emaitza onak lortu zirela esan daiteke. Adibide aipagarriena, jarraian aurkezten den liburuki hau bera da. Euskal Historialarien topaketan parte hartu zuten zenbait historialarik euren hitzaldiak idatziz aurkeztu nahi izan zituzten, euskal irakurle orori irakurtzeko aukera emanaz. Hala, UEUko *Kondaira* aldizkariak ematen duen tartea probestuz, ale honetan biltzea erabaki da.

Topaketen nondik norakoei jarraikiz, testuak kokatzen diren garaiaren arabera daude ordenatuta, Erdi Arotik hasi eta aro garaikidea bitarte. Guztira, zortzi testu dira. Iñaki Lopez de Luzuriagarena da lehen lana. Berau da denbora tarte luzeena aztertzen duena,

Erdi Aro eta Aro Modernoari erreparatuz, baina ikuspuntu oso zehatz batetik, historiografia, hizkuntza eta dibulgazioa uztartuz. Bere hitzetan, “euskarazko historia-lan bat ontzeko prozesuan kausitu diren bihurtuenean, zailtasunen eta erronken azalpen bat” eskaintzen digu.

Bigarren lana Amaia Rojo Sierrak (UPV/EHU) sinatuta dator. XV eta XVI. mendeetan Sevillan bizi ziren euskal merkatarien sarea eta merkatariek euren artean mantendu zituzten harremanak aztertu ditu, Sare Sozialen Analisia (SSA) metodologia aplikatuz. Aro Berrian baina pixka bat beranduago kokatzen du Maialen Lizarragak bere ikerlana. XVI eta XVIII. mendeetako Nafarroa iparraldeko edo mendialdeko burdin produkzioa eta jarduera hura gauzatzen zen inguruetako analisia egin du.

Laugarren ikerketa, Elorri Arcocha Mendinuetarena da (UPNA/NUP), Aro Garaikidea osatzen duten lau ikerketetan aurrenekoa. XIX. mendearen amaieran, Ipar Euskal Herriko landa eremuan eta bertan bizi ziren komunitateek ezagutu zituzten kultura aldaketak aztertzeko gogoeta eta proposamen metodologikoa aurkezten du Arcochak. Horretara, gizartea hiru agente kultural banatzen ditu: Estatuak, lekuko eliteak eta populazio landatarra.

Bosgarren lanak XX. mendearen hasierara garamatza. Igor Goñi Mendizabalek (UPV/EHU) Lehen Mundu Gerraren testuinguruan euskal armagintza sektorearen inguruko azterketa egin du. Goñik aipatzen duenez, urte haietan zehar euskal armagintza industriak bere historiako garairik oparoena bizi izan zuen.

XX. mende erdialdean hasita, urrutiago eramango gaitu seigarren lanak. Endika Rodriguez (UPV/EHU) egile duen lan hau da, guztietan euskal gaien aterpetik aldentzen den bakarra. Hain zuzen ere, ikerketa honetan Palestina eta sionismoaren arteko gaztaka ulertzeko oinarrietara hurbilketa bat egitea du xede autoreak.

1960ko hamarkadaren testuinguruan kokatzen gaitu zazpigarren testuak. Jon Delgado Aldabaldetrekuk (UPV/EHU) urte horietan Donostiak ezagututako hazkundera aztertu du eta hazkunde horrek sortu zituen desorekak nabarmendu nahi izan ditu. Autoreak aipatzen duenez, 1962an adostutako Hiri Antolamendurako Plan orokorra (HAPO) inflexio puntua izan zen, Gipuzkoako hiriburuaren eta bere inguruko nukleoaren etorkizuna baldintzatu baitzuen.

Azkenik, Aitor Sarasqueta Ormazak (UPV/EHU) 1983an Eloy Iglesiasek zuzendu zuen El Pico filmaren bitartez, urte horietako Euskal Herriko maskulinitatearen inguruko analisia gauzatu du. Autorearen esanetan, aipatu pelikulak gazteria eta gizarte talde baztertuen gainean eskaini zuen begiradak orduko euskal gizartea aztertzeko erreminta aberasgarria bihurtu dute filma.

Zortzi lan hauek, gaur egun Euskal Herrian historialariengan kezka sortzen duten gaien inguruko ikuspegi bat edukitzeko balio dute. Aipatu bezala, ez daude arlo eta garai guztiak. Ez eta topaketetan parte hartu zuten historialari guztien lanak ere. Hutsunerik nabarmenena, Historiaurretik Aro Modernora bitarteko zatian aurkitzen dugu. Baina hala ere, egun, ikerlariak zein eremutan ari diren lanean jabetu eta beraz, gure gizartearen kezka nagusienetako batzuk zeintzuk izan daitezkeen kontuan hartzeko balio dute.

Jarraian, VI. Topaketa hauetan lortutako emaitza ikusirik eta historialarion artean elkar ezagutu eta eztabaidatzeko piztu zen giro onari erreparatuz, topaketa haietan esandakoak irakurtzeko aukera eskaintzen da. Partaideak gogotsu eta pozik agertu ziren. Esperientzia errepikatzeko eta ekimenari jarraipena emateko adostasuna lortu ere bai. Hala, 2024rako Euskal Historialarien Nazioarteko VII. Topaketetan berriro elkar ikusi, etzun eta irakurtzeko prest gaude.